



## **Energia elektrikoko hornidura-kontratuaren Baldintza Orokorrak**

SOM ENERGIA, SCCL kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte kooperatibo bat da, irabazi-asmorik gabekoa. Kataluniako Kooperatiben Erregistroan inskribatuta eta Kooperatibei buruzko uztailaren 9ko 12/2015 Legearen oinarriari eta xedapenei lotuta dago. Kooperatibaren helburu sozial nagusia iturri berriztagarrietatik datozen energia elektrikoa eta bero-energia merkaturatzea eta ekoiztea da.

SOM ENERGIA, SCCL energia elektrikoaren merkaturatzaileen erregistroan R2-415 kodearekin erregistraturik dago. Kooperatibaren helbide soziala honako hau da: C/ Pic de Peguera, 11, 17003 – Girona. Eta web korporatiboa hau da: [www.somenergia.coop](http://www.somenergia.coop).

## EDUKIEN TAULA

|                                                    |    |
|----------------------------------------------------|----|
| 1. HELBURUA                                        | 3  |
| 2. JATORRI-BERMEAK                                 | 4  |
| 3. FORMALIZAZIOA ETA IRAUPENA                      | 5  |
| 4. KONTROL- ETA NEURKETA-EKIPOA                    | 6  |
| 5. PREZIOA ETA EGUNERATZEA                         | 7  |
| 6. SARERAKO SARBIDEA MERKATURATZAILEARI            | 8  |
| 7. FAKTURAZIOA ETA ORDAINKETA                      | 9  |
| 8. AUTOKONTSUMOA                                   | 11 |
| 9. ALDAKETAK                                       | 16 |
| 10. ESKUALDATZEA                                   | 16 |
| 11. ETENDURA                                       | 17 |
| 12. AMAIERA                                        | 19 |
| 13. ERANTZUKIZUNA                                  | 20 |
| 14. KALITATEA                                      | 21 |
| 15. DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA | 22 |
| 16. JAKINARAZPENAK ETA ERREKLAMAZIOAK              | 22 |
| 17. KODE ETIKOA ETA DELITUAK PREBENITZEKO EREDUA   | 23 |
| 18. LEGERIA ETA JURISDIKZIOA                       | 24 |
| 19. KONTRATU OSOA                                  | 25 |

## 1. HELBURUA

1.1 Kontratu honen (“**Kontratua edo Hornidura-kontratua**”) helburua hau da: Baldintza Partikularretan identifikaturiko pertsonak (aurrerantzean, Kontratatzailea), merkatu librean, SOM ENERGIA, SCCL-rekin energia elektrikoaren hornidura kontratatzea, Kontratatzaileak Baldintza Partikularretan zehaztutako CUPS kodeak identifikatzen duen hornidura-puntuan (aurrerantzean, Hornidura-puntua). Aipatutako kontratazioa Baldintza Partikularrek, Baldintza Orokor hauek eta, kasu bada, Kontratatzaileak eskatutako produktu edo zerbitzu osagarriei aplikatzekoak diren Berariazko Baldintzek (horiek guztiek batera Hornidura-kontratua osatzen dute) xedatutakoaren arabera gauzatzen da. Kontratu honen baliagarritasuna, eta baita Kontratatzaileak 2. klausulan ezarritako kontratu-inprimakian adierazitako potentzia eta tarifa ere, sarearen titularra den enpresa banatzaileak onartu behar ditu.

Zehazki, Hornidura-kontratu honen arabera, Kontratatzaileak:

- (i) Espresuki onartzen du SOM ENERGIA, SCCL-ren bitartez energia elektrikoaren hornidura eta banaketa-sarerako sarbidea batera kontratatzea; eta onartzen du SOM ENERGIA, SCCL-k bi kontzeptu horiengatik fakturak igortzea.
- (ii) SOM ENERGIA, SCCL baimentzen eta ahalduztzen du ordezkari gisa aritzeko Kontratatzailea konektatzen den sarearen titularra den konpainia banatzailearen aurrean, CNMCren aurrean edota beste edozein hirugarren edo erakunde eskudun baten aurrean, Hornidura-kontratu hau betetzeko egin beharreko kudeaketa guztiak egiteko.

1.2 Aurreko atalean jasotako mandatuaren kalterik gabe, Kontratatzaileak sarerako sarbide-kontratuaren titularra izaten jarraituko du; eta sarearen titularra den banatzailearen aurrean mandatutik eratorritako kontratu- eta lege-eskubide eta -betebehar guztiak gordeko ditu. Kontratu hau suntsiarazten bada, Kontratatzaileak egon litekeen berme-gordailuaren titularra izaten jarraituko du.

1.3. SOM ENERGIA, SCCL-ren Estatutuek ezartzen dutenaren arabera eta organo kooperatiboek hartutako erabakien arabera, Hornidura-kontratu hau sinatu ahal izateko, ezinbestekoa da honako baldintza hauek betetzea: (i) SOM

ENERGIA, SCCL-ren bazkide izatea, (ii) kontratazio-inprimakian identifikatzen den bazkide batek (pertsona edo erakundea) kontratuaren sinadura babestea; ala (iii) kontratua organo kooperatiboek onarturiko kanpaina baten, interkooperazio-hitzarmen baten edo bestelako hitzarmen baten inguruan sinatzea.

1.4 Hornidura-kontratua pertsonala da; beraz, Kontratatzailleak (edo ordezkatzeko duen erakundeak) honako hau adierazten eta bermatzen du: (i) pertsona fisikoa bada, adin nagusikoa da; (ii) hornitutako energia elektrikoaren benetako erabiltzailea da, eta energia ezin dio beste inori saldu edo laga, ezta beste ezein tokitan erabili ere Kontratuan jasotzen ez diren helburuetarako; (iii) benetako erabiltzailea den erreferentziako hornidura-puntuari edota CUPS kodeari dagokion etxebizitza edo lokalarekin lotzen duen titulu zuzen bat (errentamendu-kontratu, jabetza-eskritura edo beste) du; (iv) hala dagokionean, ordezkatzeko duen pertsona juridikoaren edo erakundearen (jabeen komunitateak, enpresak, elkarteak, administrazio publikoak, eta abar, barne) izenean jarduteko ahalorde edo baimen nahikoak ditu; eta (v) bere gain hartzen du emandako datuak egiazkoak izatearen erantzukizun osoa, eta hitzematen du, eskatzen diotenean, egiaztagiriak aurkeztuko dituela. Nolanahi ere, hornidura-kontratuaren titular den pertsona juridikoak edo erakundeak SOM ENERGIA, SCCL-ren aurrean erantzule izaten jarraituko du, lege-ondoreetarako, kontratuaren baldintzak betetzen ez badira edo kudeaketa aldatzen bada.

1.5. SOM ENERGIA, SCCL-k erabaki dezake Kontratu hau suntsiaraztea, betebeharrak hori betetzen ez bada edo egitasun ezagatik. Kontratatzailleak adierazten du SOM ENERGIA, SCCL-ri emandako datu pertsonal guztiak egiazkoak direla eta espresuki hitzematen du eguneratuta mantenduko dituela. Kontratatzailleak bereziki ziurtatu beharko du jakinarazpenak jasotzeko helbideak eta CUPS kodea zuzenak direla; izan ere, SOM ENERGIA, SCCL-k ezin du hori egiaztatzea. Kontratatzailleak SOM ENERGIA, SCCL-ri helbide edo CUPS kode oker bat emanez gero, egoera horrek sor ditzakeen kalteen (besteak beste, hirugarrenek kontratatutako horniduraren nahi gabeko aldaketatik eratorritako kalteak) erantzule bakarria Kontratatzaillea izango da.

## 2. JATORRI-BERMEAK

2.1 Energia % 100 berriztagarria izatea honetan datza: SOM ENERGIA, SCCL-k konpromisoa hartzen du urtero merkaturatzen den orduko megawatt-kopurua energia berriztagarrietatik sortu dela bermatzeko beharrezkoak diren jatorri-bermeak eskuratzeko. Beraz, Kontratatzaillearen kontsumo elektrikoa eta sarera isuritako elektrizitatea (jatorri berriztagarriko elektrizitatea ekoizten duten instalazioetatik datorrena) berdintsuak izango dira.

2.2 Jatorri berriztagarriko elektrizitatea ekoizten duten instalazioak agorrezinak diren iturri naturaletatik energia lortzen dutenak dira.

2.3 Elektrizitatea ziurtatzeko SOM ENERGIA, SCCL-k erabiliko duen prozedura formala CNMC-ak (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala) igorritako jatorriaren berme-ziurtagiriak izango dira.

2.4 Ekoizten den energiaren eta kontsumitzen denaren arteko balantzea urtero egingo da.

## 3. FORMALIZAZIOA ETA IRAUPENA

3.1 Bi aldeek horrela erabakita, Kontratu hau elektronikoki gauzatuko da, Merkaturatzailearen egoitza elektronikoa ([www.somenergia.coop](http://www.somenergia.coop)) eskuragarri dagoen energia kontratatze inprimakiaren bitartez. Kontratu hau burututa dagoela ulertuko da Kontratatzailleak onartzen duenean. Onarpen hori Kontratatzailleak betetako alta-prozesuaren eta inprimakiaren bitartez adieraziko da, aukeratutako tarifa, kontratatutako potentzia, CUPS kodea eta identifikazio-datuak barne. Informazio hori automatikoki Baldintza Partikularretan agertuko da.

3.2 Kontratatzailleak adierazten eta bermatzen du kontratazio-inprimakiak jasotzen dituen datu guztiak zuzenak eta egiazkoak direla. Baliozkotu eta gero, SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzailari Hornidura-kontratuaren (Baldintza Partikularrak, Baldintza Orokorrak eta, kasu bada, Berariazko Baldintzak) kopia bat bidaliko dio posta elektroniko bidez. Era berean, Kontratatzailleak dokumentu horien kopia bat bere esku izango du betirako Bulego Birtualean (SOM ENERGIA, SCCL-ren webgunearen bitartez bere kodeekin sartu ahalko da).

3.3. Kontratu hau baliozkotzen den unean sartuko da indarrean eta urtebete (1) iraungo du, Kontratatzailearen hornidura hasten den egunetik zenbatzen hasita, Baldintza Partikularretan epe laburragoa adostu ezean. Kontratua automatikoki luzatuko da urtero, baldin eta Aldeek suntsiarazteko asmoa elkarri komunikatzen ez badiote, Baldintza Orokorretan azaltzen den eran.

3.4 SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzaileari jakinaraziko dio hornidura noiz hasiko den. Enpresa banatzaileak Hornidura-puntuaren alta edo Kontratu hau burutzeko sarerako sarbide-kontratuan egin beharreko aldaketak ukatuko balitu, Kontratua automatikoki suntsiaraziko da, eta Aldeek ez dute izango kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

3.5 Kontratatzaileak ez du gutxieneko iraupen-konpromisorik hartzen; beraz, Kontratu hau nahi duenean suntsiarazi ahalko du; horretarako, bere asmoa SOM ENERGIA, SCCL-ri idatziz jakinarazi beharko dio, mezu elektroniko bat [info@somenergia.coop](mailto:info@somenergia.coop) helbidera bidalita edo Bulego Birtualaren bitartez (Hornidura-puntuaren baja eskatu nahi izatekotan).

3.6 SOM ENERGIA, SCCL-k, alde bakarrez, Kontratu hau edozein momentutan suntsiarazi ahalko du, Kontratatzaileari hogeita hamar (30) egun naturaleko aurreabisua emanaz, 12. klausulan xedatutakoaren kalterik gabe.

3.7 Hala ere, Kontratu hau indarrean mantentzeko baldintza da, indarrean dagoen legediak dioenaren arabera, Kontratatzailearen kaudimena egiaztatzea. Hortaz, SOM ENERGIA, SCCL-k hogeita hamar (20) egun baliodun izango ditu, Kontratu hau egiten den egunetik hasita, Kontratatzailearen kaudimena egiaztatzeko. SOM ENERGIA, SCCL-k hala eskatuz gero, kontratua indarrean jartzeko nahikotzat jotzen duen berme bat aurkezteko baldintza jarri ahalko du. Berme hori depositu edo banku-abal moduan egingo da eta kopuruak ez du gaindituko hiru (3) hilabeterako aurreikusten den kontsumo elektrikoa. Aipatutako epea amaitzean, SOM ENERGIA, SCCL-k ez badio eskatu Kontratatzaileari berme hori emateko, ondorioztatuko da Kontratua erabat eragingarria dela bi Aldeentzat.

3.8 Hornidura-kontratu honek irauten duen bitartean, SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzaileari behar besteko ordainketa-berme bat gordailu moduan ematea eskatu ahalko dio. Bermearen zenbatekoa sortutako azken fakturaren zenbatekoa izango da. Fakturarik igorri ez bada, hileko kontsumoa kontratatutako potentziaren arabera kalkulatu da. Berme hori exekutagarria izango da

Merkaturatzailearen lehenengo errekerimendutik aurrera, Kontratatzaileak Hornidura-kontratu honek xedatzen dituen betebeharrak, bereziki prezioa ordaintzeko betebeharra, betetzen ez baditu.

Bermea banku-helbideratze bidez ordainduko da. SOM ENERGIA, SCCL-k, Kontratatzaileari jakinarazten dionetik gutxienez zazpi (7) egun igarotzean, egingo du zordunketa. Bermea ez ordaintzea Hornidura-kontratu hau suntsiarazteko arrazoitzat hartuko da, eta suntsiarazpena hogeita hamar (30) egun natural lehenago jakinaraziko da.

Hornidura-kontratu hau amaitutakoan, SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzaileari jasotako bermea itzuliko dio, azken faktura helbideratzen denetik zenbatzen hasita, hirurogei (60) egunen buruan, adierazitako banku-kontura transferentzia bat eginez. SOM ENERGIA, SCCL-k beretzat gordetzen du bermea atxikitze ahalmena, egin ez diren ordainketa guztien zenbatekoari dagokionean, bai eta Kontratatzaileak bete ez dituen betebeharren ondoriozko kopuruei dagokienean ere.

## **4. KONTROL- ETA NEURKETA-EKIPOA**

4.1 Kontratatzaileak Hornidura-puntuan elektrizitate-horniduraren kontrol-eta neurketa-ekipo bat (“Kontrol- eta Neurketa-ekipoa”), jabetzan edo alokatuta, izan beharko du. Ekipo horrek indarreko erregulazioak eskatzen dituen baldintza teknikoak eta segurtasun-baldintzak bete beharko ditu. Kontratatzailea arduratuko da Kontrol- eta Neurketa-ekipoa zaintzeaz, erabilera zuzena bermatzeaz eta manipulatzeko ez dela bermatzeaz eta, jabea izatekotan, mantentze-lanaz ere arduratuko da.

4.2 Kontratatzaileak Kontrol- eta Neurketa-ekipoa ez manipulatzeko konpromisoa hartzen du, alde batetik; eta, bestetik, hitzematzen du ekipoak ezohiko funtzionamendua edo arazoren bat duela ikusiz gero, SOM ENERGIA, SCCL-ri edota enpresa banatzaileari horren berri emango diola.

4.3 Kontratatzaileak Kontrol- eta Neurketa-ekipoa alokatu izango balu, alokairu-erregimena eta -prezioa enpresa banatzaileak ezartzen dituenak izango dira, indarreko araudiak dioena kontuan izanik.

4.4 Kontratatzailleak SOM ENERGIA, SCCL-ri, irakurketa-arduradunari eta ekipoaren jabea den enpresa banatzaileari Kontrol- eta Neurketa-ekiporako sarbidea bermatuko die, honako lan hauek egin ahal izateko: instalazioa, ikuskapena, irakurketa, mantentze-lanak, egiaztapena eta kontrola, eta baita Hornidura-kontratua gauzatzeko egin behar diren bestelako ekintzak ere.

4.5 ITC/3860/2007 Aginduaren lehen xedapen gehigarriaren eremuan, zeinaren arabera neurketa-ekipoak ordezkatzeko plana ezartzen den teleneurketa eta ordutegi-diskriminazio funtzioak gehitzeko, SOM ENERGIA, SCCL, ahal duen neurrian, planaren ezarpen egokiaz arduratuko da. Era berean, SOM ENERGIA, SCCL-k beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu Kontratatzailleari zerbitzu egokia eskaintzeko.

4.6 Kontsumo-datuei dagokienez, Kontratatzailleak SOM ENERGIA, SCCL-ri baimena ematen dio, Kontratu honetan ezartzen diren zerbitzuak eman ahal izateko, beharrezkoak diren alde guztiei datuak era anonimoan bidaltzeko, eta baita SOM ENERGIA, SCCL-rekin harremana duten bestelako erakundeei ere, Kontratatzailleari aholku pertsonalizatuak eskaintzeko edo erremintak nahiz ikerketak garatzeko, efizientzia eta energia berriztagarriak helburu dituen eredu energetiko bat sortzeko ahaleginean.

## **5. PREZIOA ETA EGUNERATZEA**

5.1 Kontratatzailleak, kontratazioa egitean, aukeratutako tarifari (Baldintza Partikularretan agertzen dena) dagokion elektrizitate-horniduraren prezioa ordaindu beharko dio SOM ENERGIA, SCCL-ri, une bakoitzean indarrean dagoen tipoari aplikatzekoak zaizkion zergak eta ondare-prestazioak edota legeak eska ditzakeen bestelakoak barne. Era berean, Kontratatzailleak kontratazio-inprimakian edo, geroago, Bulego Birtualaren bidez hala eskatzen badu, goiko zenbatekoari fakturan borondatezko dohaintzari dagokion zenbatekoa gehituko zaio, Kooperatibaren garapenean laguntzeko.

5.2 SOM ENERGIA, SCCL-k, elektrizitate-horniduraren faktura berberean, kasu bada, neurketa-ekipoari dagokien alokairu-kuota Kontratatzailleari transferituko dio, eta baita araudiaren arabera enpresa banatzaileari dagozkion kopuruak ere, besteak beste: sarbide-bidesariak eta sistemaren karguak,

engantxe-eskubideak, sarbide-eskubideak, luzapen-eskubideak, egiaztapenak, berrezarpen-kostuak, araudiak ezartzen dituen zigorrek eta berme-gordailua.

5.3 Kontratu honek dirauen bitartean, Kontratatzaileak ordaindu beharreko prezioa alda liteke honako kasu hauetan:

(i) Administrazioak arauturiko edozein balore edo ezarritako ondare-prestazioak aldatuz gero; edo enpresa banatzaileak aplikatu behar dituen erregulazio-prezioak aldatzen badira. Aldaketa horiek automatikoki aplikatuko zaizkio Hornidura-kontratuari, baina horrek ez du esan nahiko Kontratua aldatu denik (9. klausulak dioen bezala).

(ii) Administrazioak arautzen ez duen prezioaren zatia Errektore Kontseiluak gutxienez urtero berrituko du, SOM ENERGIA, SCCL-ren Batzar Nagusiak hartutako erabakiak kontuan hartuz. Aldaketa horiek Kontratatzaileari jakinaraziko zaizkio aldaketak gertatu baino hogeita hamar (30) egun natural lehenago. Prezioaren igoera ekarriko balute, Kontratatzaileak, aldaketen berri jaso eta hamabost (15) egun natural igaro baino lehenago, Kontratua suntsiarazi ahalko du, SOM ENERGIA, SCCL-ri Kontratu honetan ezartzen den edozein bide erabiliz jakinarazita. Kontratua epe horretan suntsiarazi ezean, Kontratatzaileak aldaketa onartzen duela ulertuko da.

Kontratatzaileak bere eskura izango ditu aplikagarri zaizkion prezioari eta tarifei buruzko informazio eguneratua SOM ENERGIA, SCCL-ren webgune korporatiboan

([www.somenergia.coop](http://www.somenergia.coop)) eta une bakoitzean sinatuta eta indarrean dagoen Kontratuan.

5.4 Kontratatzaileak berak bakarrik edo enpresa banatzaileak, indarreko araudiak xedatzen duenaren arabera, Kontrol- eta Neurketa-ekipoan edo Kontratatzailearen instalazioetan egindako jardueretatik sortzen diren gastuei aurre egin beharko diote.

5.5 Neurketa-ekipoek gaizki funtzionatuiko balute edo akats administratiboren bat gertatuko balitz, 1955/2000 Errege Dekretuko 96. artikulua edo hura ordezkatzen duen araudiak ezarritakoa beteko da.

## **6. SARERAKO SARBIDEA MERKATURATZAILEARI**

6.1 Kontratatzaileak SOM ENERGIA, SCCL baimentzen eta ahalduztzen du, Kontratuak dirauen bitartean, enpresa banatzailearekin sarerako sarbide-kontratua bere izenean sina dezan, Baldintza Orokorrak eta indarreko araudian jasotako baldintzak aintzat hartuz.

6.2 Kontratua baliozkotzean, energia elektrikoaren hornitzailea zigorrik jaso gabe aldatzeko eskubideari kalte egin gabe, Kontratatzaileak konpromisoa hartzen du, Kontratuaren indarraldian zehar, bere izenean formalizatutako sarerako sarbide-kontratua ez deuseztatzeko, ezta aldatzeko ezta berritzeko ere. Betebehar hori bete ezean, SOM ENERGIA, SCCL-k, 12. klausulak ezartzen duenaren arabera, Kontratu hau suntsiarazi ahalko du.

6.3 SOM ENERGIA, SCCL-k sarerako sarbide-kontratua indarreko legedia betetzen dela bermatzeko beharrezkoa denean bakarrik aldatu ahal izango du. Halaber, kontratua aldatu ahal izango du bezeroak eskaeran azaldutako baldintzak egiaztatzeko eta, hala badagokio, doitzeko eta zuzentzeko, baina bakarrik banatzaileak bezeroaren eskaera ez errefusatzeko behar-beharrezkoa denean. Aldaketa horiek bezeroari jakinaraziko zaizkio, beranduen jota, bezeroak eskatutako aldaketa edo kontratua aktibatzeke unean. Nolanahi ere, bezeroak kontratua edozein unetan suntsiarazi ahal izango du, Baldintza Orokorrak 3.5. klausularekin bat etorriaz. SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzailearen fakturan jasoko ditu enpresa banatzaileak aldaketa horiengatik fakturatutako kostuak. Eta Kontratatzaileak, dena den, sarbide-kontratuari lotutako eskubide guztiak gordeko ditu enpresa banatzailearen aurrean, eta leudekeen berme-gordailuaren titularra izaten jarraituko du.

6.4. Kontratatzaileak autokontsumo-instalazioak baditu, bi Aldeek legedian ezarritako xedapenei men egingo diete, eta Kontratatzailearen eta enpresa banatzailearen arteko sarerako sarbide-kontratua SOM ENERGIA, SCCL-ren bitartez gauzatu ahal izango da.

6.5. Kontratatzaileak Merkaturatzaileari eskatu ahalko dio enpresa banatzailearekin sarerako sarbide-kontratuaren suntsiarazpena tramitatzea eta, ondorioz, Hornidura-puntuaren baja gauzatuko da. Horretarako, Kontratatzaileak inprimaki bat aurkituko du Bulego Birtualean. Baja ez da berehala gertatuko, banatzaileak araudiak ezarritako epea baitu baja gauzatzeko eta, nolanahi ere,

horretarako, Kontratatzailleak enpresa banatzaileari neurketa-ekiporako sarbidea eman behar dio. Merkaturatzaileak ezin du inola ere ziurtatu zein egunetan zehazki gauzatuko den baja; hortaz, Kontratatzailleak horniduraren baja egiten den egunera arte ordaindu beharko du hornidura (hargatik eragotzi gabe enpresa banatzaileari aurkez diezazkiokeen erreklamazioak).

## 7. FAKTURAZIOA ETA ORDAINKETA

7.1 Merkaturatzailea saiatuko da Kontratatzailleari hornidura elektrikoaren eta banaketa-sarerako sarbidearen kontzeptuak, eta baita Baldintza Orokorrak hauetan agertzen diren gainerako kontzeptuak ere, hileroko hilabeteka fakturatzen, baina, salbuespen gisa, hileroko erregularizatuko diren eta, inola ere, aurretik fakturatzeko ekarriko ez duten asteko fakturak igorri ahaliko ditu, baldin eta irakurketa-arduradunak sortutako informazioarekin eta indarrean dagoen araudiak ezarritako moduarekin eta aldizkakotasunarekin bat etorritik egingarria bada.

7.2 SOM ENERGIA, SCCL-k, irakurketa-arduradunak egindako irakurketetan oinarrituta, elektrizitate-kontsumo kontzeptuari dagokion ordaindu beharreko kopurua fakturatuko du, araudi aplikagarria betearaziz. Fakturazio-eguna iristean, irakurketa-arduradunak SOM ENERGIA, SCCL-ri Kontrol- eta Neurketa-ekipoaren irakurketa zehatza emango ez balio, Kontratatzailleak SOM ENERGIA, SCCL-ri berariazko baimena ematen dio, egoki iritziz gero, gutxi gorabeherako zenbateko bat fakturatzeko. Kopuru hori behin-behineko ordutegi-kurben bidez irakurketa-arduradunak jakinarazitako kontsumoa edo Kontratatzaillearen kontsumo historikoen (gehienez hamalau [14] hilabete) ondoriozko eguneko kontsumoa oinarri hartuta kalkulatu da. Eta SOM ENERGIA, SCCL-k, kontsumoaren irakurketa erreala jasotzen duenean, hurrengo fakturretan egin beharreko doikuntza burutuko du.

7.3 Kontratatzailleak Kontrol- eta Neurketa-ekipoan egiten duen irakurketa irakurketa-arduradunari edota SOM ENERGIA, SCCL-ri bidal diezaike, eta SOM ENERGIA, SCCL-ri berariazko baimena ematen dio, beharrezko iritziz gero, hornidura irakurketa horren arabera fakturatzeko, eta, okerrik izanez gero, egin beharreko edozein erregularizazio onartzen du. SOM ENERGIA, SCCL-k beretzat gordetzen du autoirakurketa hori fakturazio-ondoreetarako errefusatzeko

eskubidea, baldin eta irakurketa-arduradunak emandako irakurketak baditu edo autoirakurketa hori arduradunak bidalitako azken irakurketekin bat ez badator. Halere, autoirakurketa irakurketa-arduradunari bidaliko zaio tratatu eta baliozkotu dezan.

7.4 SOM ENERGIA, SCCL-k igorritako fakturak legeak ezartzen dituen kontzeptu guztiak banakatuko ditu; eta bereziki hauek: energiaren kostua, sarerako sarbide-bidesariak eta dagozkion zordunketak, elektrizitate-kontsumoari ezartzen zaizkion zergak eta, hala badagokio, lurraldeari dagozkion gehigarriak ere. Era berean, hornitutako energiaren jatorriari buruzko informazioa emango dio Kontratatzaleari, 2. klausulan ezartzen dena kontuan izanik.

7.5 Kontratatzaleak espresuki onartzen du faktura formatu elektronikoa eta posta elektronikoa bitartez (Baldintza Partikularretan jasotzen den helbidean) jasotzea, kontsumitzaileen babesari buruzko indarreko araudian ezarritakoa betetz eta araudiari jarraituz dagozkion eskubideak galarazi gabe. Dena dela, Kontratatzaleak faktura paperean jasotzea eskatu ahalko du [info@somenergia.coop](mailto:info@somenergia.coop) helbide elektronikoa.

7.6 Ordainketa. Fakturak banku-helbideratze bidez ordainduko dira, Baldintza Partikularretan agertzen den eta Kontratatzaleak horretarako aukeratzen duen banku-kontuan. Ordainketa faktura-egunaren ondorengo zazpi (7) egunak igarotzean egin daitekeela bermatu beharko da. Kontratatzaleak adierazten eta bermatzen du bankuan egin beharreko tramiteak egin dituela ordainketa-baldintza hauek Kontratuak dirauen bitartean betearaz daitezela. Kontratatzalea administrazio publikoa edo tarifa pertsonalizatua duen pertsona juridiko bat bada, ordainketa banku-transferentzia bidez egin ahalko da, Kontratatzalearen eskariz. Eta, halakoetan, Kontratatzaleak ordainketa faktura-dataren ondorengo zazpi (7) egunetan burutzeko konpromisoa hartzen du.

7.7 Kontratatzaleak SOM ENERGIA, SCCL-ri baimena ematen dio egin beharreko guztia egiteko Baldintza Partikularretan agertzen den banku-kontuan faktura zorduntzeko. Faktura bat ordaindu gabe itzultzen bada, SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzaleari itzulketa horrek eta ordaindu gabeko zorraren erreklamazioak dakartzaten banku-gastuak eta administrazio-kostuak jasanaraziko dizkio, betiere ordaindu gabe gelditu den kopurua gainditu gabe.

7.8 Ordainketa berandu egitea. Fakturak berandu ordainduko balira, SOM ENERGIA, SCCL-k berandutze-interesa ezarri ahalko du, inongo errekerimendurik gabe. Interes hori honela kalkulatu da: ordaindu ez den unean indarrean dagoen berandutze-interes legala gehi dagozkion kudeaketa-gastuak.

7.9 Berandutze-interesa egunero metatuko da, likidatuko da eta ordaindu gabeko faktura ordaintzen denean pagatuko da. Metatu diren ordaindu gabeko berandutze-interesak hilero kapitalizatu ahal izango dira. Era berean, eta Kontratu honetako 11. eta 12. klausuletan adierazitakoaren kalterik gabe, Kontratatzailleak epemuga iritsitakoan zor dituen zenbatekoak ordaindu ezean, SOM ENERGIA, SCCL-k kreditu- eta ondare-kaudimenari buruzko informazio-zerbitzuei egoera jakinaraziko die, halakoetan aplikagarria den araudiaren arabera.

## 8. AUTOKONTSUMOA

8.1. **Autokontsumoaren alta.** Kontratatzaillearen hornidura-puntua, indarrean dagoen araudiaren arabera, autokontsumo-modalitate bat hautatu dezakeen ekoizpen-instalazio batekin lotuta badago, Kontratatzailleak SOM ENERGIA, SCCL-rekin duen Kontratua aldatu ahalko du, edo kontratu berri bat formalizatu ahalko du, Kontratua autokontsumo-modalitateara egokitzeko. Kontratatzaillea autokontsumo-instalazioa instalatzeaz, legalizatzeaz eta mantentzeaz arduratuko da. Instalazio-motaren eta indarrean dagoen araudiaren arabera, enpresa banatzaileak edo Kontratatzailleak bidaliko dio SOM ENERGIA, SCCL-ri instalazioaren informazio teknikoa. Enpresa banatzaileak SOM ENERGIA, SCCL-ri edozein aldaketa jakinarazten badiu, SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzaileri eskatuko dio emandako datuak zuzenak direla egiaztatzeko. Kontratatzailleak banatzaileak ezarritako epean erantzuten ez badu, datuak zuzenak direla ulertuko da.

Autokontsumoari aplikagarri zaizkion baldintza orokorrak une oro egongo dira eskuragarri [www.somenergia.coop](http://www.somenergia.coop) webgune korporatiboan. Baldintza horien arabera, Kontratatzailleak kontratuaren aldaketa edo alta eskatuko du nahi duen autokontsumo-modalitatea barne hartzeko edo aldatzeko, [www.somenergia.coop](http://www.somenergia.coop) webgunean eskuragarri dauden inprimakiak erabiliz edo, eskuragarri ez badaude, posta elektroniko bitartez. Eskaera horrek berekin dakar

SOM ENERGIA, SCCL-k eskaintzen dituen baldintzak automatikoki onartzea, adibidez: soberakinen konpentsazio-prezioa edo aplikagarria den autokontsumo-modalitatea. Baldintza horiek Kontratatzaileak kontratazioa egiteko unean jasoko duen Kontratuan (zehazki, Baldintza Partikularretan) jasoko dira.

Kontratatzaileak aldaketa edo alta aurreko paragrafoaren arabera eskatzen duen arte, SOM ENERGIA, SCCL-k ezingo du tramitatu autokontsumoaren aktibazioa eta, ondorioz, ez da izango sortzen diren kostuen (lortu gabeko irabazia, barne) ez kalteen erantzule. Halere, enpresa banatzaileak jakinarazten badio SOM ENERGIA, SCCL-ri autokontsumo-modalitate bat dagoela, Merkaturatzaileak egoeraren berri emango dio Kontratatzaileari eta jakinaraziko dio, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera, noiztik aurrera ulertuko den Kontratatzaileak aldaketa isilbidez onartzen duela.

Kontratatzaileak hornidura SOM ENERGIA, SCCL-rekin kontratatuta baldin badu eta SOM ENERGIAK SCCL-k eskaintzen dituen baldintzekin bat ez datorren autokontsumo-modalitate edo -ezaugarriren bat nahi baldin badu, Kontratatzaileari jakinaraziko zaio, merkaturatzailez aldatzeko kudeaketak egin ditzan. Kasu horretan, SOM ENERGIA, SCCL-k hornidura-kontratua mantenduko du, autokontsumoa aktibatu gabe.

SOM ENERGIA, SCCL-k uste badu Kontratatzailearen aldaketak edo eskaerak ezin direla bete edo SOM ENERGIA, SCCL-ri kalte egin diezaioketela, Kontratatzaileari egoera horren berri emango dio. SOM ENERGIA, SCCL-k ez du eskatutako autokontsumoa aktibatuko, eta hornidura-kontratua suntsiarazi ahalko du hamar (10) eguneko aurreabisuarekin. Halakoetan, Kontratatzaileak berariaz onartuko du dagokion erreferentziako merkaturatzailearen hornidura.

**8.2 Autokontsumoaren aktibazioa.** Kontratatzaileak aukeratu duen autokontsumo-modalitatearen aplikazio-data eraginkorra enpresa banatzaileak adierazitakoa izango da, 244/2019 Errege Dekretuko 9.3. artikulua edo, kasu bada, ordeztzen duen araudiaren arabera.

**8.3 Kontsumo-instalazioa eta, kasu bada, ekoizpen-instalazioa konektaturik dagoen sarearen enpresa titularren erantzukizunari dagokionez, eta 13. klausulari kalterik egin gabe, Kontratatzaileak honako hau ezagutzen duela dio:**

- a) Soberakinak dituzten autokontsumoko hornidura-modalitateetan, hurbil eta kontsumoari lotuta dauden ekoizpen-instalazioek garraio- edo banaketa-sarerako konexio-azpiegiturak partekatzen baldin badituzte edo kontsumitzaile baten barne-sarera konektatzen baldin badira, kontsumitzaile eta ekoizleek erantzukizun solidarioa izango dute 244/2019 Errege Dekretuan edo ordezkatzan duen araudian jasotzen diren manuak betetzen ez badira. Eta aipatutako puntuaren deskonexioak bi aldeei eragin diezazkien ondorioak onartuko dituzte, indarrean dagoen legediaren arabera, horien artean: ekoizleak energia saldu eta legokiokeen ordainsaria jaso ezin izatea, edo kontsumitzaileak energia jaso ezin izatea.
- b) Autokontsumo-modalitatearen bat duten instalazioek garraio- edo banaketa-sarean sortutako gorabeherei dagokionez, abenduaren 26ko 24/2013 Legean eta hura garatzeko araudian, eta, bereziki, azaroaren 18ko 1699/2011 Errege Dekretuan xedatzen dena beteko da. Azken horrek potentzia txikiko energia elektrikoa sortzen duten instalazioen sarerako konexioa arautzen du, bere aplikazio-eremuan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren eremuan sartzen diren instalazioetarako. Enpresa banatzaileak edo, kasu bada, garraio-enpresak, ez du inolako legezko betebeharririk izango ekoizleak eta kontsumitzaileak partekatutako konexio-instalazioetan gertatzen diren akatsen ondoriozko zerbitzu-kalitateari dagokionez.

#### 8.4 Aldeen betebeharrak espezifikoak:

- a) 244/2019 Errege Dekretuko 8. artikuluan edo, kasu bada, ordezkatzan duen araudiaren arabera:
  - Edozein autokontsumo-modalitate hautatzeko, edo dagoeneko araututa dagoen autokontsumo-modalitatearen bat izanez gero, sorkuntza-instalazioan instalaturiko potentzia aldatzen denean, kontsumo-instalazioetarako sarbide-kontratuaren titularrak egoera horren berri eman beharko dio enpresa banatzaileari, edo, kasu bada, garraio-enpresari, zuzenean edo enpresa merkaturatzailearen bitartez. Enpresa banatzaileak, edo, kasu bada, garraio-enpresak, hamar (10) egun izango ditu, jakinarazpena jasotzen duen unetik, dagoen sarbide-kontratua aldatzeko, aplikagarria den legediaren arabera, egoera hori jasota

uzteko eta kontratua kontsumitzaileari bidaltzeko. Kontsumitzaileak, bere aldetik, hamar (10) egun izango ditu, jakinarazpena jasotzen duen unetik, garraio-enpresari edo enpresa banatzaileari bere desadostasuna adierazteko. Desadostasunik adierazten ez badu, kontratu horretan jasotako baldintzak isilbidez onartzen direla ulertuko da.

- Behe-tentsiora konektatuta dauden kontsumitzaileen kasuan, sorkuntza-instalazioa behe-tentsiokoa eta instalaturiko potentzia 100 kW-tik beherakoa bada, sarbide-kontratuaren aldaketa enpresa banatzaileak egingo du, autonomia-erkidegoek bidaltzen duten dokumentazioaren arabera, eta sarearen titularra den enpresak bost (5) egun izango ditu aldatutako kontratua bidaltzeko.
- b) Edozein autokontsumo-modalitate hautatzeko, kontsumo-instalazioetarako sarbide-kontraturik ez duten kontsumitzaileek zuzenean enpresa banatzailearekin, edo enpresa merkaturatzailearen bitartez, kontratu bat sinatu beharko dute, egoera hori jasota utzita.
- c) Konpentsaziorik jasotzen ez duten baina soberakinak dituzten autokontsumo-modalitateetan ekoizpen-zerbitzu osagarrietarako hornidura-kontratu bat sinatu behar denean, kontsumo-instalazioei lotuta eta hurbil dagoen ekoizpen-instalazioaren titularrak sarbide-kontratu bat sinatu beharko du zuzenean, edo enpresa merkaturatzailearen bitartez, enpresa banatzailearekin bere ekoizpen-zerbitzu osagarrietarako; edo, bestela, dagoen kontratua aldatu beharko du, aplikagarria den araudiaren arabera, egoera hori jasota uzteko. Kontsumitzailearen sarbide-kontratuaren alta- edo aldaketa-data, eta, kasu bada, ekoizpen-zerbitzu osagarriena, berbera izan beharko da. Klausula honetan xedatzen denak ez du eraginik izango, aplikagarria den legediaren arabera, ekoizpen-zerbitzu osagarrietarako eta loturiko kontsumorako hornidura-kontratu bakarria egin behar denean.
- d) Aukeratutako autokontsumo-modalitatearen iraupen-konpromisoa, gutxienez, lau (4) hilabetekoa izango da, goiko paragrafoetan ezarritakoaren arabera egindako sarbide-kontratuen alta- edo aldaketa-egunetik zenbatzen hasita, eta automatikoki luzatu ahalko da,

244/2019 Errege Dekretuaren Lehen Xedapen Iragankorrari kalterik egin gabe, indarrean sartu aurretik bazeuden autokontsumoetarako.

- e) 244/2019 Errege Dekretuko 10. artikulua arabera, edo, kasu bada, ordeztu duen araudiaren arabera, edozein autokontsumo-modalitate duten subjektuek beharrezkoak diren neurketa-ekipoak izango dituzte prezioen, tarifen, karguen, sarbide-bidesarien eta, une bakoitzeko araudiaren arabera aplikagarriak diren, bestelako kostu eta sistema-zerbitzuen fakturazioa zuzena izan dadin. Irakurketa-arduradunak ezarriko ditu, kasuaren arabera, araudian ezartzen diren ondoriozko galeren koefizienteak.
- f) Baldintza teknikoak ez betetzeagatik instalazioak arriskutsuak direnean, edo neurketa-ekipoa edo isurien aurkako mekanismoa manipulatu denean, enpresa banatzaileak, edo, kasu bada, garraio-enpresak, hornidura eten ahalko du, abenduaren 1eko 1955/200 Errege Dekretuko 87. artikulua arabera.

**8.5 Konpentsazio sinplifikatua.** Konpentsazio sinplifikatuko mekanismoa izanez gero, SOM ENERGIA, SCCL-k fakturretan konpentsazio hori jasoko du, enpresa banatzaileak helarazitako informazioaren arabera, 244/2019 Errege Dekretuaren eta autokontsumo-modalitate horri dagozkion bestelako araudien arabera. Eta, zehazki, SOM ENERGIA, SCCL-k saretik kontsumitutako energia hilabete bateko (1) fakturazio-alditan fakturatuko du, irakurketak eta banatzaileak helarazitako bestelako informazioak oinarri hartuta, 244/2019 Errege Dekretuko 13. eta 14. artikuluen arabera, Baldintza Partikularretan adierazten den konpentsazio-prezioa ezarri.

Errektore Kontseiluak adostutako konpentsazio-prezioa gutxienez urtero eguneratuko du, SOM ENERGIA, SCCL-ren Batzarrak hartzen dituen erabakietan oinarrituz. Aldaketa horiek Kontratatzaileari jakinaraziko zaizkio, 16. klausularen arabera, aldaketa aplikatu baino hogeita hamar (30) egun naturaleko aurrerapenarekin, eta prezioa jaitea badakarte, Kontratatzaileak kontratua suntsiarazi ahalko du, SOM ENERGIA, SCCL-ri Kontratu honetan jasotzen den edozein bide erabiliz jakinarazita, jakinarazi ondoren hamabost (15) egun naturalen buruan. Kontratua epe horretan suntsiarazten ez bada, Kontratatzaileak aldaketa onartu duela ulertuko da.

Aplikagarriak diren prezio eta tarifen gaineko informazio eguneratua Kontratatzaileraren eskura egongo da SOM ENERGIA, SCCL-ren webgune korporatiboan ([www.somenergia.coop](http://www.somenergia.coop)).

Konpentsazio sinplifikatuaren ondoriozko konpentsazio ekonomikoa ezingo da izan Kontratatzaileraren aldeko diru-sarrera bat edo antzeko mekanismoren bat, une bakoitzean aplikagarria den legediaren arabera. Konpentsazioa kontsumitu den energia-terminoari bakarrik aplikatuko zaio eta ez du eraginik izango fakturan barne hartu beharreko gainerako kostuetan.

Kontratatzailerak konpentsazio sinplifikatuko soberakinak dituen autokontsumo-modalitatea aukeratzen badu, eta zerbitzu osagarrietarako hornidura kontratatu behar denean, aplikatzekoa den araudiak dio hornidura-kontratu bakarra egin beharko dela.

8.6 SOM ENERGIA, SCCL-k deskontu bat aplikatuko du konpentsazio sinplifikatuko modalitatea duten autokontsumo-kontratuen inguruan Kontratatzaileri igorritako fakturretan. **Flux Solar** izeneko deskontu hori, goiko 8.5. klausularen arabera, instalazioko soberakinen balio ekonomiko osoa konpentsatu ezin izan den fakturaren hurrengo fakturatik aurrera aplikatuko da. Deskontua irakurketa-arduradunak jakinarazi dituen eta konpentsatu ezin izan diren soberakinen balioaren % 80 izango da. Deskontu-unitate bakoitza “**Sol**” deituko da, eta Kontratatzailerak bere saldoa zuzenean Bulego Birtualean kontsultatu ahalko du, soberakinak barne hartzen dituen faktura igortzen den dataren hurrengo egunetik aurrera.

SOM ENERGIA, SCCL-k saldo hori sortutako soberakinak barne hartzen dituen fakturaren hurrengo fakturatik aurrera aplikatuko du, eta saldoak ez du inoiz gaindituko fakturaren balioa. Deskontua kontzeptu hauengatik fakturatutako zenbatekoei aplikatuko zaie: erabilitako energia eta potentzia (baldin eta ez badago irregulartasun edo iruzurrei lotuta), bonu soziala, kontagailuaren alokairua eta elektrizitatearen gaineko zerga. Sols saldoak zenbateko hori gainditzen duenean, SOM ENERGIA, SCCL-k diferentzia ondorengo fakturretan aplikatuko du, igorpena barne hartzen duen fakturaren datatik BOST (5) URTEKO epea igaro arte. Ordutik aurrera, aplikatu ez diren Sols iraungiko dira.

SOM ENERGIA, SCCL-k deskontu honen baldintzak edozein unetan aldatu ahalko ditu, Kontratatzaileri hogeita hamar (30) egun naturaleko aurreabisua ematen

badio. Horrek ez die eragingo aplikatzeke gelditzen diren Sols eta, ondorioz, Baldintza Orokor hauetan aurreikusitako baldintzetan mantenduko dira.

## **9. ALDAKETAK**

9.1 Aldeek Kontratuan jasotzen diren betebeharrak bete beharko dituzte, bertan jasotako baldintzen arabera.

9.2 Aurrekoari kalterik egin gabe, SOM ENERGIA, SCCL-k, Errektore Kontseiluaren edo Bazkideen Batzordearen erabakiz, Kontratu hau aldatu ahalko du. Aldaketak klausula honetan ezarritakoarekin bat etorriaz jakinaraziko zaizkio Kontratatzailleari, eta aldaketak merkatu elektrikoaren legedia betetzeko eta Kooperatibak transmititu nahi dituen balioei buruzko irizpideak ezartzeko helburuaz egin ahalko dira.

9.3 Era berean, SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratua aldatu ahalko du, elektrizitate-merkatuetan aldaketak gertatu direlako edo beste edozein arrazoiengatik, kontratuko prestazioak ematea oso garestia dela frogatzen badu.

9.4 Aldaketa horiek aplikatu baino hogeita hamar (30) egun natural lehenago jakinaraziko zaizkio Kontratatzailleari. Eta prezioaren igoera badakarte, Kontratatzailleak Kontratua suntsiarazi ahalko, SOM ENERGIA, SCCL-ri Kontratu honetan jasotzen den edozein bide erabiliz jakinarazita, jakinarazi ondoren hamabost (15) egun naturalen buruan. Kontratua epe horretan suntsiarazi ezean, Kontratatzailleak aldaketa onartzen duela ulertuko da.

9.5 Kontratatzailleak SOM ENERGIA, SCCL-ri Kontratua aldatzea eskatu ahalko dio, Kooperatibaren webgunean horretarako sortutako formularioen bidez. Eta eskatutako aldaketak Kontratatzailleak eta sarearen jabea den enpresa banatzaileak formalizatutako sarerako sarbide-kontratuari eragiten badio, SOM ENERGIA, SCCL-k ahalegin guztiak egingo ditu banatzaileak aldaketa tramitatu eta aktibatu dezan. Kontratatzailleak SOM ENERGIA, SCCL-rekin kontratatuta duen tarifa aldatzea eskatzen badu, Kontratatzailleak ezingo du beste eskaerarik egin tarifa-aldaketa aktibatzen den arte (hots, hurrengo fakturazio-zikloan). Ezingo da tarifa-aldaketarik eskatu sarerako sarbide-kontratuari eragiten dioten

eta enpresa banatzaileak oraindik aktibatu ez dituen aurretiko eskaerak aktibatzen diren arte.

## 10. ESKUALDATZEA

10.1 Kontratatzaileak ordainketak egunean baditu, bere sarerako sarbide-kontratua hirugarren bati eskualdatu ahalko zaio, baldin eta Kontratatzailearen instalazioa kontratuan adostutako baldintza berberetan erabili behar badu. Horretarako, kontratatzaile berriak SOM ENERGIA, SCCL-ri titularra aldatzea eskatuko dio [www.somenergia.coop](http://www.somenergia.coop) webgunean ezartzen diren mekanismoak erabiliz, eta bere datu pertsonalak, helbidea, IFK eta banku-helbideratzeko datuak emango ditu. Behin eskaera onartuta, SOM ENERGIA, SCCL-k enpresa banatzailearekin kudeatuko du aldaketa. Eta eskualdatzea ez da eraginkorra izango sarbide-kontratua erregularizatu arte, betiere 3.4. atalean SOM ENERGIA, SCCL-k lagapen-hartzailearen kaudimena egiaztatzeari buruz xedatzen denari kalterik egin gabe.

10.2 Edozein kasutan, Hornidura-puntuaren titular berriak Baldintza Orokor hauetan ezartzen diren kontratazio-baldintzak bete beharko ditu, bereziki, SOM ENERGIA, SCCL-ren bazkide izatea edo bazkidea den pertsona baten babesatzaile izatea. Eta titular berria ez da subrogatuko, lotutako Sols saldoari dagokionez, hornidura-puntuaren aurreko titularraren eskubideetan.

## 11. ETENDURA

11.1 Ez-ordaintzearen ondoriozko etendura. SOM ENERGIA, SCCL-k enpresa banatzaileari hornidura elektrikoa etetea eskatu ahalko dio, baldin eta ordaintzeko errekerimendua egiten denetik hamabost (15) egun baliodun igarotzean edo kontsumitzaile-motaren arabera, ordainketa formalki eskatu eta gauzatu ez denetik, legeak ezartzen dituen epeak igaro ondoren Kontratatzaileak ordaintzen ez badu. Ez ordaintzeagatik hornidura eteteak ez du Kontratatzailea salbuetsiko zor duen zenbatekoa ordaintzetik, dagozkion interes eta gainordainak barne. Kasu horretan, SOM ENERGIA, SCCL-k enpresa banatzaileari hornidura berriro konektatzeko eskatuko dio, zor diren zenbateko guztiak (etenaldiak eta

horniduraren berriro konektatzeak sortu dituzten gastuak barne) ordaintzen diren dataren hurrengo egun baliodunean. Uneko araudiaren arabera eta araudian ezarritako baldintzetan, enpresa banatzaileak izango du soilik hornidura berriro konektatzeko ardura.

11.2 Beste etendura-kausa batzuk. SOM ENERGIA, SCCL-k enpresa banatzaileari eskatu ahalko dio hornidura elektrikoa etetea ondorengo kasuetan:

- a. Konexio zuzenerako eskubideak, aurretik kontraturik izan gabe.
- b. Kontratuan aurreikusita ez dagoen instalazio bat energiaz hornitzeagatik sortutako deribazioak.
- c. Kontrol- eta Neurketa-ekipoa manipulatzeko edo haren erabilera zuzena saihestea.
- d. Garraio- edo banaketa-sarea erabilgarri ez egotea.
- e. Ezinbesteko kausa edo segurtasun-arrazoiak, edo garraio- eta banaketa-instalazioen mantentze-, konpontze-, ordezkatzeko- eta zabaltze-lanak egitea.
- f. Pertsonak eta ondasunak arriskuan egotea.
- g. Kontratatzailearen instalazioen kontserbazio-egoera eskasa, horrek pertsonen eta ondasunen segurtasuna arriskuan jartzen duenean.
- h. Enpresa banatzaileak potentzia kontrolatzeko ekipoa instalatu ezin izatea.
- i. Kontratua suntsiaraztea.
- j. Indarreko araudiak aurreikusten dituen kasuak.

11.3 Etendura jakinaraztea. SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzaileari horniduraren etendura indarrean dagoen legediak ezartzen dituen epe eta prozeduren bidez jakinaraziko dio, aurreko d), e), f) eta g) kasuetan izan ezik, zeinetan horniduraren etendura egoera horiek gertatzen direnean egin ahalko den.

11.4 Hornidura berrezartzea. Hornidura ez da berrezarriko etendura eragin duen egoera aldatu arte eta Kontratatzailleak ordaindu gabe dagoen kopuru osoa, ordura arte metatutako interesak eta hornidura eteteari zein berrezartzeari dagozkion zenbatekoak pagatu arte. SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzailleari berme bat fidantza eta banku-abal moduan aurkeztea eskatu ahalko dio hornidura berrezartzeko. Berme hori Kontratua amaitzean itzuliko da eta hiru (3) hilabete naturalekoa (kontratatu den tarifaren prezioan kalkulatuta) izan ahalko da. Berme hori exekutatzeke eta itzultzeko baldintzak 3.8. klausulan ezartzen dira.

11.5 Klausula honetan xedatzen denak ez dio kalte egiten SOM ENERGIA, SCCL-k 12. klausularen arabera Kontratu hau suntsiarazteko duen eskubideari, ezta indarrean dagoen araudiaren arabera funtsezko horniduretarako aurreikusitako espezialitateei ere.

11.6 Hornidura etetea agindu ordez, SOM ENERGIA, SCCL-k, Kontratatzailleak kontratu hau betetzen ez badu eta inguruabarrak kontuan hartuta egoki baderitzo, Kontratu hau suntsiarazi ahalko du; eta, ondorioz, Kontratatzailleak, indarrean dagoen legedian ezarritako prozeduren arabera, erreferentziako merkaturatzailearekin izango du kontratuzko harremana.

## 12. AMAIERA

12.1 Kontsumitzailea den Kontratatzailleak, kasu bakoitzean ezartzen den araudiaren arabera, Kontratu honi uko egiteko eskubidea izango du, araudi horietan ezartzen diren baldintzetan, kontratua egin eta hamalau (14) egun igaro baino lehen, arrazoi zuzenik alegatzeko beharrik gabe. Hala egiten badu, kontratuari uko egiteko asmoa posta elektronikoz edo postaz jakinaraziko du 16. klausulan adierazten diren helbideetan. SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzailleari ordura arte egindako elektrizitate-kontsumoari dagozkion kopuruak bakarrik kobratu ahal izango dizkio, Kode Zibilean eta indarrean dauden gainerako legedietan xedatzen denaren arabera.

12.2 Behar baino lehenago suntsiarazteko kausak. Kontsumitzailea den Kontratatzaillearen uko egiteko eskubideari buruz goiko klausulan ezarritakoari kalterik egin gabe, Aldeek Kontratu hau honako kasu hauetan suntsiarazi ahalko dute idatzizko komunikazio bat bidaliz, 16. klausulan adierazten den bezala:

- a) Indarrean dagoen legediak dioen kasuetan.
- b) Aldeak ados jartzen badira.
- c) Aldeetako batek behar baino lehenago alde bakarretik suntsiarazten badu, 3. klausulan ezarritako baldintzetan. Kontratu hau aldatzeko 9. klausulan xedatzen den ahalmena galarazi gabe, eta bakarrik Kooperatibaren bideragarritasuna bermatzeko helburuarekin, SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratua alde bakarretik suntsiarazi ahalko du, bost (5) egun lehenago jakinarazita, baldin eta, elektrizitate-merkatuen gorabeherengatik edo Kooperatibarekin zerikusirik ez duen beste arrazoren batengatik, kontratuko prestazioak ematea garestiegia dela frogatzen badu.
- d) Kontratu honetan jasotzen diren betebeharrak modu larrian ez betetzeagatik eta, batez ere, Aldeetako batek ez badu betetzen edo ez badu burutzen, behin eta berriro edo era larrian, Kontratu honek ezartzen dituen betebeharrak; eta ez-betetzea beste aldeak bidalitako errekerimendua jaso ondoren 5 egun baliodun igaro baino lehen zuzentzen ez badu.
- e) Kontrol- eta Neurketa-ekipoak bidegabe manipulatzegatik edo iruzurra eginez gero.
- f) Kontratatzaileak 1. klausulan jasotzen diren kontratazio-betebeharrak betetzen ez baditu, batez ere, kasu hauetan: Kontratatzaileak jarduera uzten badu edo Hornidura-puntuaren elektrizitatea erabiltzen ez badu, bazkide izateari uzten badio edo SOM ENERGIA, SCCL-ren bazkide den pertsona edo erakunderen batekin lotura izateari uzten badio.
- g) Igorritako fakturak ordaintzen ez badira, ordainketa-egunetik bost (5) egun igarotzean, 7. klausulan ezarritako berandutze-interesen aplikazioari kalterik egin gabe eta betiere aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen epe eta baldintzetan.
- h) Sarerako sarbide-kontratua suntsiarazten bada.
- i) Kontratu honetan edo aplikatzekoa den legerian aurreikusten den beste edozein kasutan.

12.3 Hala, 12.2 klausulan azaltzen diren arrazoiengatik Kontratua suntsiarazten bada, Kontratatzalea behartuta egongo da zerbitzuaren baja-egunera arte hornidura ordaintzera, eta baita aplikagarriak diren interesak eta egoera horrek SOM ENERGIA, SCCL-ri eragiten dizkion kalte-galerak ere. Klausula honetan adierazten dena ez da ezarriko b) eta c) kasuetan edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako araudiak kontrakoa agintzen duenean.

12.4 Kontratua ez ordaintzeagatik amaitzen bada, SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratuaren titularrari zorrak ordaintzea eskatu ahalko dio; eta, titularra bazkide izatekotan, SOM ENERGIA, SCCL-ri emandako kapital soziala erabili ahalko du, behin-behineko neurri gisa. Halakoetan, kapital soziala erabili eta hamabost (15) egun igaro baino lehen itzuli beharko da. Errektore Kontseiluak edo, kasu bada, estatutuen eta indarreko legeriaren arabera hark delegatzen duen organoak kasua aztertuko du eta, egoki baderitzo, SOM ENERGIA, SCCL-ren estatutuetan jasotzen den falta eta zehapenen erregimena aplikatuko du.

## **13. ERANTZUKIZUNA**

13.1 Dolozko ez-betetzea gertatzen denean izan ezik, eta une bakoitzean indarrean dagoen araudiak horri dagokionez agintzen duena aintzat hartuz, Aldeetako inor ez da erantzule izango bestearen aurrean, Kontratu hau ez betetzeagatik sor daitezkeen zeharkako kalteengatik edo lortu gabeko irabaziengatik. SOM ENERGIA, SCCL ez da inola ere izango Kontratatzaleari edo hirugarrenei sorrarazten zaizkien kalte-galeren erantzule, zuzenean SOM ENERGIA, SCCL-ri lepora ezin dakiokkeen Kontratatzalearen beraren edo beste inoren ekintzak edo omisioak direla eta, indarreko legeriak xedatzen duenarekin bat etorriaz. Ondorio horietarako jakinarazten da energia elektrikoaren kalitateak eta zerbitzuaren jarraitutasunak izan ditzaketen hutsuneak sarearen titularra den enpresari, energia elektrikoa entregatzeaz arduratzen diren garraio-enpresari edota enpresa banatzaileari egozgarriak direla, eta inola ere enpresa merkaturatzaileari, merkaturatzailearen aurrean erreklamatzeko eskubidea galarazi gabe.

13.2 Aldeetako inor ez da Kontratu honek jasotzen dituen betebeharrak ez betetzearen erantzule izango, ez-betetze hori ezinbesteko kausa baten ondorioz gertatzen bada, batez ere ezin bada energia Hornidura-puntura helarazi SOM

ENERGIA, SCCL-rekin zerikusirik ez duten kausengatik. Kontratu honen arabera, hau da Ezinbesteko Kausatzat ulertzen dena: Aldeek kontrolatu ezin duten edozein ekintza, egoera edo kausa, nahiz eta kaltetutako aldeak arduraz jardun, edo ezustean sortzen dena, edo aurretik gerta daitekeela jakinda ere, saihestezina, eutsi ezinekoa edota Aldeen borondatearen kontrakoa bada.

13.3 Ezinbesteko Kausak kaltetutako aldeak berehala jakinaraziko dio gertatutakoa beste aldeari, alegatutako Ezinbesteko Kausa zehatz-mehatz deskribatuz eta aurreikusitako iraupenari buruzko informazioa emanez. Kontratuko betebeharrak betetzeko betebeharra eten egingo da Ezinbesteko Kausak dirauen bitartean. Behin Ezinbesteko Kausa amaituta, Aldeek Kontratua gauzatzen jarraitzeko denboraldia eta neurri egokiak adostuko dituzte. Ezinbesteko Kausak hiru hilabete baino gehiago irauten badu, bi Aldeetako edozeinek Kontratua suntsiarazi ahalko du.

13.4 Kontratatzailea bere barne-instalazioaz arduratuko da eta baita derrigorrezko azterketak edota ikuskapenak egiteaz eta instalazio hartzaileak (kontsumo-ekipoak barne) kontserbazio-egoera ezin hobean mantentzeaz ere eta horiek modu egokian erabiltzeaz.

## **14. KALITATEA**

14.1 Kontratu honen helburu diren horniduraren kalitate-estandarrek une bakoitzean indarrean dagoen erregulazioak ezartzen dituenak izango dira. Baina hornitzen den energiaren jarraipenaren eta kalitatearen arduraduna enpresa banatzailea izango da, bera baita Hornidura-puntuarekin konektatzen den sarearen jabea. SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzailearen interesak babestuko ditu enpresa banatzailearen aurrean.

14.2 Enpresa banatzaileak horniduraren kalitatean huts egiten badu, eta aplikatzekoa den araudiak hala xedatzen duenean, SOM ENERGIA, SCCL-k tramitatuko ditu Kontratatzaileari sarean gertatutako gorabeherengatik dagozkion deskontuak, hobariak edota kalte-ordainketak, legediak dioena kontuan hartuz.

14.3 Aurrekoari kalterik egin gabe, eta sektore elektrikoari aplikatzen zaizkion arauak aintzat hartuz, Kontratatzaileak adierazten du badakiela enpresa

banatzaileak Hornidura-puntuarekin konektatzen den sarea mantentzeko ardura duela, eta baita horniduraren kalitatea eta jarraitutasuna bermatzeko ardura ere. SOM ENERGIA, SCCL ez da inola ere erantzule izango Kontratatzailleak jasaten dituen kalteengatik, arrazoiak honako hauek direnean: jarraitutasun eza, etenaldiak edo horniduraren kalitate txarra, besteak beste, horniduraren mozketak, gaintentsioak, tentsio -jaitsierak edo antezko intzidentziak barne hartuta. Halakoetan, SOM ENERGIA, SCCL-k Kontratatzailari jakinarazi beharko dizkio Hornidura-puntuari dagokion sarearen titularra den enpresa banatzailearen identitatea nahiz helbidea, eta baita eskura duen informazio tekniko guztia ere, Kontratatzailleak haren kontra erreklamazio judiziala edo estrajudiziala jarri ahal izateko.

## **15. DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA**

15.1 Kontratatzailari jakinarazten zaio Hornidura-kontratu honen eremuan emandako datu pertsonalen arduraduna SOM ENERGIA, SCCL dela. SOM ENERGIA, SCCL-k datu horiek bere energia elektrikoko hornidura (eta kontratatutako beste zerbitzu batzuk) kontratatzeko eskaerari erantzuteko eta bere produktu eta zerbitzuei buruzko informazioa bidaltzeko soilik erabiliko ditu. Kontratu honen sinaduraren eta Kontratatzailleak Kontratua sinatzean ematen duen baimenaren bidez, datuen tratamendua legitimatzen da.

15.2 Kontrataturako hornidura gauzatzean, pertsona interesdunaren datuak beste enpresei lagatzea aurreikusita dago, kontraturiko zerbitzuak emateko beharrezkoa denean, adibidez: zerga- eta kontabilitate-aholkularitzak, banketxeak eta kuxak, zerga-administrazioa edo beste administrazio publikoak, enpresa banatzaileak, ordaindu gabekoa berreskuratzeko enpresak, berankortasun-erregistroak eta beste herrialde batzuk.

15.3 Kontratatzailleak datuak atzitu, aldatu eta ezabatzeko eskubidea du, eta baita SOM ENERGIA, SCCL-ren Pribatutasun Politikan ([www.somenergia.coop](http://www.somenergia.coop) webgunean kontsultagai dago) azaltzen diren beste eskubide batzuk ere. Eskubide horiek erabiltzeko eta informazio gehiago eskatzeko, 16. klausulan zehazten den SOM ENERGIA, SCCL-ren helbidera jo beharko du.

## 16. JAKINARAZPENAK ETA ERREKLAMAZIOAK

16.1 Kontratatzaileak kontratazioa egitean adierazi dituen eta Baldintza Partikularretan jasotzen diren posta elektronikoko helbidea eta posta-helbidea izendatzen ditu jakinarazpenak jasotzeko. Eta hitzematzen du, helbideak aldatzen badira, SOM ENERGIA, SCCL-ri komunikatuko diola.

16.2 Aldeek adosten dute fakturen abisua, eta baita beste edozein informazio orokor ere, posta elektroniko bitartez (Baldintza Partikularretan jasotzen den helbidera, hain zuzen) egitea lehenetsiko dutela. Eta Kontratatzailea arduratuko da helbide elektronikoa egoera onean mantentzeaz.

16.3 Kontratatzaileak horretarako sortutako komunikazio-kanalaren bidez harremanetan jarri ahalko da; eta, kasu bada, SOM ENERGIA, SCCL-ri erreklamazioak helarazi ahalko dizkio. Kanal hauek etengabe eguneratuta daude webgune korporatiboan

([www.somenergia.coop](http://www.somenergia.coop)

<https://es.support.somenergia.coop/article/471-como-puedo-contactar-con-la-cooperativa-mail-telefono-etc>), bereziki:

- Posta elektroniko bitartez, helbide honetan: [info@somenergia.coop](mailto:info@somenergia.coop)
- Posta bitartez, helbide honetan:

Parque Científico y Tecnológico de la UDG. Edificio Giroemprèn.

C / Pic de Peguera, 11 17003 Girona

- Inprimaki elektronikoa erabiliz: <https://eu.support.somenergia.coop> - Kontaktua
- Telefonoz, 900.103.605 edo 972.183.386 doako zenbakietan

16.4 SOM ENERGIA, SCCL-ren ordutegia, astelehenetik ostiralera, hau da: 9:00etatik 17:00etara, Gironako jaiegunetan izan ezik. Ordutegi horren barruan, telefono bidezko arreta 9:00etatik 14:00etara eskaintzen da.

## 17. KODE ETIKOA ETA DELITUAK PREBENITZEKO EREDUA

SOM ENERGIA, SCCL-k gure balioak ezartzen dituen eta ustelkeriaren aurrean tolerantziarik ez dugula adierazten duen Kode Etiko bat du (gure webgunean kontsulta <https://www.somenergia.coop/eu/nortzuk-gara/#dokumentazioa>). Halaber, gure errealitatera egokitzen den delituak prebenitzeko eredu bat ezarri dugu. Kooperatibaren etika- eta integritate-kultura sustatzeko oinarritzkoa den Etika Batzordeak kontrolatzen eta ikuskatzen du Kode Etikoa. Kode Etikoak Kontratatzaileak SOM ENERGIA, SCCL-ri kodea betetzen ez dela eta legeak edo araudiak urratzen dituen edozein jokabide desagoki jakinarazteko eskura dituen mekanismo guztiak jasotzen ditu.

SOM ENERGIA, SCCL-k espero du gurekin lan egiten duten hornitzaile eta hirugarrenek Kode Etikoak ezartzen dituen jokaera-estandarrak betetzea; eta, bereziki, delituaren aurrean eta, zehazki, ustelkeriaren aurrean, tolerantziarik ez izatea.

## 18. LEGERIA ETA JURISDIKZIOA

18.1 Kontratatzaileak, Kontratua baliozkotzean, adierazten du gatazkak konpontzeko indarreko araudian aurreikusten diren prozedurak, energia elektrikoak kontsumitzen duten pertsonen dagokionez, ezagutzen dituela. Zehazki, adierazten du aplikatzekoa den araudian aurreikusten diren prozedura estrajudizialek jotzeko aukera ezagutzen duela, eta baita autonomia-erkidegoek ezarritako prozedurak, eta energia elektrikoaren azken erabiltzaile gisa dituen berariazko eskubideen gaineko eztabaidak Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioaren menpe jartzeko aukera ere. Era berean, Europako Zuzenbideak hala aurreikusten baitu, jakinarazten dugu Europako Batzordeak auziak berrikusteko lineako plataforma bat duela eta esteka honetan eskuragarri dagoela: <http://ec.europa.eu/consumers/odr/>.

1955/2000 Errege Dekretuko 98. artikulua, edo, hala badagokio, hori ordeztuko duen arauak, ezarritakoaren arabera, Hornidura-kontratuaren edo hortik eratorritako fakturazioaren inguruan sortzen diren erreklamazioak edo desadostasunak hornidura gauzatzen den autonomia-erkidegoan

energia-kontuetan eskudun den organoak modu administratiboan ebatzi ahal izango ditu.

Horrez gain, aplikatzekoa den araudiaren arabera, Kontratatzailea kontsumitzailea edo erabiltzailea denean, desadostasunak sortzen badira eta SOM ENERGIA, SCCL-k xedatze-ahalmena badu, bere herri edo hiriko Kontsumitzailearen arretarako udal-bulegora jo ahalko du, edo Kontsumoko Arbitraje Sistemara

(<https://www.consumo.gob.es/eu/consumo/sistema-arbitral-consumo>), zeinari SOM ENERGIA, SCCL atxikita baitago.

Arbitrajeari buruzko 60/2003 Legean, 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuan, 231/2008 Errege Dekretuan eta aplikatzekoak diren gainerako araudietan aurreikusitakoari jarraikiz, ezin dira kontsumo-arbitrajearen bidez ebatzi: (i) behin betiko ebazpen judizial irmoa jaso duten auziak, (ii) aldeek xedatze-ahalmenik ez duten auziak, (iii) indarreko legeriaren arabera, Ministerio Fiskalak esku hartzea eskatzen duten auziak edo (iv) intoxikazioak, lesioak edota heriotzak gertatzen direnean, edo arrazoizko delitu-aztarnak daudenean.

18.2 Kontratu hau Espainiako legeek zuzenduko dute eta haien arabera interpretatuko da.

18.3 Klausula honetan ezarritakoari kalterik egin gabe (Kontratu honen inguruan sortzen diren gatazkak konpontzeko beste bideei dagokienez), sor daitezkeen aferak Gironako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira, aplikatzekoa den araudiak besterik agintzen ez badu.

## **19. KONTRATU OSOA**

19.1 Baldintza Orokorrak hauek, Baldintza Partikularrekin batera, Hornidura-puntuko energia-horniduraren gaineko Aldeen arteko akordio guztiak barne hartzen dituzte, eta Aldeek Kontratu hau sinadura baino lehen egindako beste itun edo akordio guztiak ordezkatzeko dituzte. Baldintza hauek elektronikoki formalizatu dira eta Kontratatzaileari berak adierazitako helbide elektronikora bidali zaizkio.

19.2 Baldintza Orokor hauetako edozein baldintza baliorik gabe edo eraginkortasunik gabe geratzen bada, ez du besteen baliotasuna edo eraginkortasuna kaltetuko, eta Aldeentzat bete beharrekoak izaten jarraituko dute. Halakoetan, Aldeek hitzematzen dute baliogabetutako klausula antzeko eragina duen beste klausula baliodun batekin ordezkatzeko dutela, fede onaren eta kontraprestazioen orekaren printzipioen arabera. Aldeetako batek, une jakin batean, hemen xedatutako Baldintza Orokorretako edozein baldintza betearazteari uko egiten badio, ez du esan nahiko baldintza guztiak betearazteari uko egiten zaiola eta horrek ez du sortuko beste aldearentzako inolako eskubiderik.